

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Lurzatiak lagatzea Bastidako herrian ehiza esparrua eratzeko

Bastidako Udalak, 2019ko otsailaren 6ko osoko bilkuran, erabaki zuen 2.704 hektarea gordineko ehiza esparrua eratzeko, zeinaren titularrak, jabe taldea ordezkatzuz, Bastidako Udala izango den.

Ehiza esparru horren sorreran esparrurako zehaztutako inguruan dauden lurzati guztiak, nola publikoak (barne udalaren 167, 168, 169, 170 eta 171 onura publikoko mendiak) hala pribatuak, daudenez gero, honen bidez jakinarazten da egoera hori, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman dezaten eragindako lursailen jabeek. Ulertuko da isilbidezko baimena eman dutela iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, hamabost egun balioduneko epean, kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek Bastidako udaletxean, eta udalak baimena izango du ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza esparruan sartzeko.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Bastida, 2019ko otsailaren 6a

Alkate-lehendakaria
LAURA PEREZ BORINAGA